

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxepa Antoni Aristi Isasti

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1905-1995)*

Aurkibidea



Biografia



Zigordia kalean eta Trinitate kalean bizi izan zen, baina gaztetan neskame ere joan zen Madrilera etxeetan lan egitera. Euskaldunek langile finaren ospea zutenez, besteek baino 5 pezeta gehiago irabazten zituen. Madrildik itzuli zenean Fidel Etxabe Makazaga zarautzarrarekin ezkondu zen eta 8 seme-alaba izan zituen. Geroztik etxeko lanetan aritu zen. Joxepa Antonik bidaiatxoak eta eguneko txangoak zituen gustuko, batik bat loteria. Loteria zalea zen oso. Hiztun bizia eta arina, "Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean, eta makina bat kontu batu zitzaizkion.

Zintak

ZAR-098

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Murua, Idoia
- **Data:** 1990-01-01
- **Iraupena:** 25 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

ZAR-123

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe Belamendia, Ines
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 26 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxabe Belamendia, Ines

Pasarteak

1. Eskolatik piper, eta tifusaren indarra

- **Erref:** ZAR-123/003
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:03:17. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Klasetik piper egiten zuenean, bakarrik joaten zen. Tifusarengatik hil zitzaizkion ama eta ahizpa. Entierroak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Bai... gogo gutxi zenekala klasea juteko ta hola, ta piperrak eiten zenitula esan dezu, ba? Eta ze, lagunakin eiten zenitun o bakarrik? Edo lagunak gogo asko zekaten, eta zuk gutxi...?

- Ni gutxi juan nitunan, ni kosta juten nitunan. Arratsaldia pasatzen niñan ta yasta. Baiña noizian behin e? Bestela gogoik gabe, larri estudiatu niñan nik, hoi zeatu ikasi niñan, eta bestela ezar ez. Handikan ez niñan eze zeatu... geo hamabi urtekin kalea.

- Eta esan dezu, komentatu dezu ere ama hil zitzaizula hamabost urtekin, ta ahizpa zarra hemezortzi urtekua...

- Ti, ti, tifus, tifus izan giñenan, eta hirurok izan giñenan. Lenbizi biyok, ama ta biyok, eleizakuak eman, ta danak inda. Ta geo, ama hil hunan; eta ahizpa, ni kuartutik erten nitzanian, bere kuartura jun nitunan, gaixotu nunan hura, eta ni ikusi nitunian txokatuta geatu nunan gajua, eta esan zitxanan, inpresiyua eman nitxonan nonbait, eta beste alde beitu zitxanan, ta geyo akabo, hilda geatu hunan. Hirurok eon giñan, ba, tifusekin, eta kanpaik gabe ta ezer gabe enterratzen hitunan orduan. Eta hala jun hitunan hayek biyak, ta ni sendatu nitunan, eta aita ta anayakin hola geatu nitzan. Ta geo, harrezkeo, ba, esan detena, koiñatakin ta bizi nitzan gerora.

2. Madrilen neskame

- **Erref:** ZAR-123/004
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:06:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Madrilen neskame aritu zenean lanean, gehiago ordaintzen zioten euskalduna izateagatik. Madrilgo esperientziari eta bizimoduari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Bai, eta beste gauza bitxi bat'e bai esan dezu: Madridea jun ziñala neskame bezela; eta han, ba, kasteillanai edo kanpotarra, baiña euskalduna izateatik geyo pagatzen zenituela eo...

- Bai, hori esan diñat.

- Ta zergaitik hori edo...?

- A, ba, euskaldunak giñalako, nunbait, geyo pagatzen ziun.

- Eta nola izan zan zure esperientzia Madri aldian, hemen, Euskal Herriyan bizi izan beti ta harrea junda?

- Hara junda, ba, erderaz bagendakiun, euskera, nola zean Mixiikordiyan erderaz, zeatzen zun, esto, ikasten gendun, ba, handik gendakiun. Ta launak izan nitun getaiarrak, eta banitun Altunaneke andrian ama, eta Joxepa Antoni Ola're bai Illarramendi, geure bizilaunak izandakua zan gaiña, eta hura're bagendun. Ta holaxe dibertitzen giñan ondo, jaiero

ertetzen giñan ta, nere bizimoua holaxe izan zan: beatzi hillabete eo pasa gendun, ta honea atzea, hoixe. Gure bizimoua Madrilen, ba, seiñoritakin goizian ertetzen nitzan konpreta, ta geo ya jatordua dala ta, itxia garbitzia dala ta, iten genduzen. Eta geo zeatu, geo ostegunian eta zapatuan eamaten nitun zeara, zinea, seiñoritak beak. Halaxe jutun nitzan, ta bapo. Ta beste jaitan berriz'e ertetzen nitzan beste laun hoyekin. Ba, jutun giñan baile batea, eta dantzan in, eta itxea. Gure bizimoua hoixe izan zan han beatzi hillabete haietan.

3. Egindako lanak

- **Erref:** ZAR-123/006
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:08:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Ezkondutak aurretik eta ezkondutak ondoren non eta zertan ibili zen lanean kontatzen du.

Transkripzioa

Lenbizi solteretan'e izaten nitzan Getayan ere: bazkaldu ta korrika han jutun giñan, eta illuntzian zazpitan lagatzen gendun lana, ta jun ta etorri oiñez etorri giñan, iten genun. Eta gerora, ba, ezkondutak nitzanian'e segitu nun hainbeste urtian, segitu nun lanian han, eta beste itxetan, ta han txaletetan, ta ba, esaten detena, alde guztitan lanian. Koltxoi iten bada, makiña koltxoi urtian-urtian iten nitula, makiña tokitakuak. Eta beste gaiñuntzen, ze esango det? Ze esango diñat? Lana iten gendun, zeakin, esto.. antxua zeatzen txo... e... zeatzen jartzen txiri... zea jartzen, jesus! Esango diñat! Latetan, hamar kiloko latetan. Ta Txuekanian, berriz, jardun nitzanian, txortetan; eta txortak hainbesteko barrilla handiyakin han sartu eziñikan ibiltzen giñala, makiña lan hortan'e in deula, makiña primaberetan ibili geala hortan'e. Ta beste gaiñuntzian, txaletetan, ta beste alde guztitan, Ilengusutan ta danetan, Beisteginian ta danian... hainbeste tokitan in detela, ez dakitela zenbat tokitan in deten, o... holaxe.

4. Ezkondutakoan, bizitza gogorra

- **Erref:** ZAR-123/007
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:08:21. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Ezkontzean, 8 ume izan zituen. Baina senarra gaixotu egiten zen, eta soldatarik gabe bizi izan ziren denboraldi batean. Gerra garaian ere senarra gaixo egon zen, eta etxean senide ugari ziren dagoeneko. Senarra itzuli

zenean, lanean hasi zen, baina ahul zegoen. 66 urterekin erretiratu zen. Bere senarrari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Uain arte, ba, solterako bizitza nola eaman zenun kontatu diazu, ta hori. Gero, ezkondu ta gero, zortzi seme-alaba euki ta bizitza nehiko gogorra euki zenula kontatu ta hori pixkat...

- Ba, hori ba, ba, ezkondu ezkeo, ba, berriz'e interinatzat hasi nitzan; eta esan detena, zor... esto... haurrak'e sarri izan nitula, eta hasi nitzala, ba, esto... lanian bat eta bestian, baiña geo gizonakin'e suerte handigiya're ez nula izan, zeatikan bastante... geo gaxotuta euki nula, eta urti... zenbat, laugarren haurra izan nunian, hamar hillabete zitunian, gaixo izan zula, minijitis ote zun zeatuta. Eta sei bat hillabetian behintzat perro txikik gabe, jornalik gabe eon giñala, gaiñea. Eta geo nundikan, handikan bialdu ziela, klinika eaman gendula. Ta klinika jun, ta ba, sartu zizkiyoen zea batzuek, indiziyo batzuek eta gauzak, eta hiltzea itxea bialdu zit... nitula... zitula. Eta ekarri zuela; ta geo handikan puxkatea, handik hillabete o gehio, nun bialtzen dien faktura "viuda de Etxabe" iñez; eta orduko hamen don Leandrokin ta Zinkunegi jaunakin makiña zeatu, alkar ko... zeatu ziala, kontsultatu ziala, eta hayek emandako medikamentuakin ta abar atea zala behintzat. Sei hillabete haundi pasa ziala bai, baiña pasa ziala. Geo, berriz, gerra denboak etorri ziala. Gerra denboetan'e, berriz, hiru hillabeteko zeara eraman ziyela, komandantzira; ta geo gaixotu in zala, berriz handikan Mixeikordira pasa zuela. Hara're jatordua eaman in bihar. Nik hainbesteko familiya, gizonan ama're hartuta nakala itxian, "así que" banakala nik nahiko lana. Eta bosgarrena otubrian izan nula. Ba, ordun'e, ondorenian nola, zea, mendira jun bihar izan nula egurra, egurreta sua ingo banun. Nee bizitza tristia izan dala. Eta beste gaiñuntzian, esan detena: hiru hillabete pasata, behintzat, etorri zala; ta gerora lanian hasi zala. Baiña gerora're debilla izan zala; geo prostata're izan zula, beste gaxo bat'e izan zula berriz, harekin're pasa zula; ta geo, esan detena, geo, berriz, erretiratu zanian ya gauza ez zala, retiratu zan hirurogeita sei urtekin, eta ordun, ta... Zeatu zan urte pare batian o erten bazan pixkat taberna zulo pixkatea, geyo ez zala erten. Ta hirurogeita hemeretzi urtekin hil zala, nahiko gaixua pasata. Ze esango diñat...

- Ta... zure gizona zein izan zan?

- Nee gizona izan zan gaztetan futbolista, lehenbiziko, zea ekipoko, Moillarriko, zea, porterua izan zan. Urte asko pasa zitun, ta geo ya erretiratu zan. "Así que" da Fidel Etxabe Makazaga hura, Txorten. Eta zean, kuadrilla Trastornokua; eta geo makiña bat urtian Alfán lana indakua. Eta uain lau urte otubrian hil zan.

5. Gerra garaiko eta gerra osteko bizimodua

- **Erref:** ZAR-123/008
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra garaiko bizimoduari buruz hitz egiten du: senarra gaixo ondorenean zegoen, eta kooperatiba batean sartu zen. Egur bila mendira joaten ziren.

Errazionamendua hutsaren parekoa zen haientzat. Makina bat miseria pasa zuten orduan. Arraina jaten zuten gosea kentzeko. Beldurrez bizi ziren.

Transkripzioa

- Gerra denborako garaia aipatu dezu, ba: nola izan zan, ba, Zarautzen, Zarauzko bizimoua, eta partikularki zuen bizitza? Ze iten zenuen denbora hartan?

- Ezer gabe geatu giñanan, eta gizona gaixo ondorenian hunan, eta ordun gerra hasteko denboran bertantxe, hastia zitxaztenan lanian, milla pezta bota behar izan zitxanan, hori ingo bage... zeatu... esto... lengo soziyo, nausiya ekarriko bazuen egurra lana lanian hasteko. Eta sartu giñanan batzuek, zea, koperatiba bezela, eta milla pezta bota bihar izan niñanan. Ta gerora, ba, esan detena, harrezkeo gauza asko pasatu ditun. Klaro, geo... eraman zian komandantzira're, ta geo egur billa're jun bihar izaten giñanan zeara, mendira o, ta ahal dan bezela bizi giñanan, gaxki. Ta rasionamentua're... hutsa, ezer ez, rasionamentuik ez giñanan, ze ematen zuen: egiya esan, askotan aza sustarrak, eta txiki-txiki inda jaten, ta holako gauzak. Eta gero, ze pasa zan?... Ez naz gogoatzen. Ba, gizona're bai kartzelan eon hunan, ba, esan detena, hiru hillabeteko. Komandantziya zeon han Narrosen, eta hortikan Mixiikordiya eraman zuen, eta handikan, ba, hiru hillabete pasa, ta don Ebariston bitartez, zeoze harek zeatu, nola mixerriyan gauden familiya, eta atea ziela. Eta jaungoikuai eskerrak gerora lanea hasi zala, eta gauza handik ez gendula izan, ez "puntos ni comas" gaiñea, ez gendula ordun izan, eta mixerriyan biz... pranko pasa nula zea hoyetan. Ta nik bezela, beste askoek pasako zuela. Eta nola ez zan jun aurea, ez dakitela gaiñea; pardela pronto jarri, ta danak in zitxiala, zeatikan jende guztiya, bere laun guztiyak bazijuaztela, ta ze in bihar zun harek, ez zun ezertxo're egin harek. Txipiroita juten zan, txa... txalupa txiki bat bazekan, ta "aunque sea" itxian jateko baik'e zeozar; arroz pilla batekin jan iten gendun hura sikiera. Holaxe ibiltzen gi... holako bizitza izan gendun, tristia. Ta pasa zian, pasa zan hura're, ta pasa han, pasa zian hemen'e. Zeak eta gu, bildurrak aidian ze pasako, baiña itxetikan iya erten gabe eon giñala, ta holaxe.

6. Guardia zibilarekin izandako gorabeherak

- **Erref:** ZAR-123/009
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:15:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Guardia zibilak senarrari egindakoa kontatzen du.

Transkripzioa

Geroa, lanian hasi zan gizona, eta behin etorri zan garbantzu pilla batekin, zea, fabrikatikan. Eta gaiñea azukre ta hoyek ematen zizkiyon, han, zean... Graziyak harei, nere seme-alabak patrika sartu, ta jan iten zituela azukriak baik'e, ta holaxe zeatzen ziala. Eta, ba, gizona behin eman ziyola garbantzuak, rasionamentuko zea hauek... eman ziyola, zatorrela guardia zibillak nola geatu zuen, ta guardia zibilleta eaman zuela, eta nola geo esan ziyon nola zakarkiyen rasionamentu zeatikan, taillerretik, eta esan

ziyola ordun “ah, bueno, ya preguntaremos”. Ta Alfa nola deitu zuen, ta egiya zala, nola danak eaman zituen, eta zea, eta horigatikan bakarrikan libre laga ziyoela. Baiña hogeita bi hillabetia osuan egunero-egunero presentatu in bihar izaten zula eguardiyan, taillerretik bueltan datorrela. Bei... hori're in ziyoela, ta ezer ez zula hark ezertxo're in: idea nazionalistana zula, hoixe bakarrikan, ta hemen bi guardio zeeze erainazi ziyoela, besteik ez zula izan, harrek, zea...

7. Ezkongabetako aisialdia

- **Erref:** ZAR-123/011
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:17:55. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Ezkongabea zela, Zarautzen ondo pasatzen zuen. Zer egiten zuten kontatzen du: zinera joan, sokasaltoan ibili, txangoak egin, dantza egin...

Transkripzioa

Zautzen'e dibertitu giñan solteretan, eta gazte denbora ondo pasa gendun. Dibertizen giñan, ba, joten giñan launak, hiru o lau laun; eta joten giñan eo pastelei batea, pastela jaten giñun; geo fubolea joten giñan, fubolian pasatzen gendun denbora; ta geo nobiyuakin igual zinea joten giñan. Ta nobiyua ez gendun bitartian, berriz, kuadrilla bagendakan, hain kuadrilla haundiya gaiñeA, Zabalegineko Joxe Gereka bat, eta kuadrilla haundiya izaten zan zea hoyek, Benturaneko ta mutillak, zea, eta neska-mutillak igual sokasaltuan Munuan jarduten giñan. Hartu, ta neska-mutillak neskak bagiña bexelaxe, igual-igual, Munutikan betikan eskailletan gora, ta zean “dos a la vez” iñaz, zea, ta... bestiak sokea ta hola ibiltzen giñan, oso, zea, juerga haundiya pasatzen giñun. Eta esan detena, mutillakin baita eskursiyuak in ditugu zeara, Azkizura ta, o zeara, Erniyoa're, bi urtetan in giñun nobiyuakin ta haren kuadrillakin; nobiyuak batzuek ta bestiak bere launak hauek, kuadrilla, Trastornoko kuadrillo gendun. Eta hara jun, Azkizuraino jun, han euriya, alpargatak berriyak jantzi geo, eta berriz Tolosa jun giñan. Tolosan'e ondo pasa gendun, bazkaldu gendun, etorri giñan Lasarte tranbian, han berriz dantza pixkat in gendun, Lasarten, eta trena hartu, ta honea. Honea etorri giñan, ta berriz'e musika etorri, Musika plaza, ta dantza jota utziz danak, sueltua, oso... Esaten det ondo pasa gendun guk, zean, dibertituak izan gea; batekin ta bestiakin, ta danak lagun, eta danok dantzan iten gendun, jotauzi.

8. Koadro batean margotu zutenekoa

- **Erref:** ZAR-123/015
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:23:18. **Bukatu:** 00:25:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Behin margolari batek eskatu zion ea bazeukan berari margotzea koadro batean. Koadroa egin bitartean, zer-nolako egunak pasa zituen kontatzen du.

Transkripzioa

Ta gauza bat aztu zitxatenan, esango diñat. Esto, Kaperotxipik behin ikusi nitxonan, ta esan zitxanan, hiru laun gitx... guazten. Eta mezetatik erten, ta hirurok guazten, ta esan zian: “aizu, gauza bat galdetuko dizut: etorri nahi... nik, zure, zu... pintatzia nahi... zure aurpegiya pintatzia nahi det”, “ni? Bai... Hamen guapaguak!” esan nitxonan, “Hamen, ba, guapaguak!”, eta esan zian, “Ez, ez, nik zu nahi dizut zeatu, pintatu”. Eta nere artian pentsatu nula, bere andrian ahizpa nola Maria Kalderon izan nun oso lagun, alkarrekin giñan, eta beti alkarrekin ondo izan giñan, ba, Beistaginian alkarrekin hura kozinera ta ni interina, eta horreatik nahiko ziala, ba, nei zeatu, pintatu. Ta “Bueno, bueno”, ez nitzan... ez nakala gogo handikan, zeatikan bastante makal nabillela, baiña hanketatik eta zea. Eta holaxen, esto... bueno, ba, aindu niyola jungo nitzala. Eta egunero-egunero jun bihar izaten nula iya San Pelayoaiño, oiñez jun ta oiñez etortzen nitzala: juten nintzala hirurak aldeako, eta han ordubete hantxe exerita, kontu kontari, e? Beak... kontuak kontatuaz, ta ai, andria onduan, eta harekin hizketan ta, ta ni hantxe geldi-geldi nola eoten nitzan, eta ez nitzala nekatu, klaro, exerita eoten nitzala ordun; baiña bidian asko nekatu nitzala, eon nitzala astebete, iya bi. Jun nitzan jun ta etorri, eta esan nahi niyon “ene, zenbat nekatzen naiz!”. Eta ez siestik in ta ezer in gabe juten nitzala, ohitu siesta iten, eta neke haundiya eukitzen nuala, ta halaxen pintatu nola in zian, eta oso kuadro polita dakatela, zea, kuadro polita pintatuta. Eta geo, gaiña, kafesnia ematen ziela, ta hantxe eoten giñala hirurok hartzen kafesnia geure gailletakin ta. Ta geo dakat, nerekin batian jarriya beak, jarri zun geo nonbait, banakin hura’re pintatuta zakala, aparte, baiña nere zea batian dakat Manu Zarra, oso majo, oso kuadro polita dakat, errekuerto polita in zian. Eta ze esango det? Zerbait eman zian, eskupeko bat, eta konforme. Ta holaxen pasa nun nik, pasia pranko in nun, baiña nekatuta e? Zeatik ez neon oso zea, hanketatikan ta ibiltzeko. Ta halaxe pasa gendun. Hori’re in deu, hori’re behintzat kuadro polita dakat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com